

EUSKARA LANTZEKO HOBEKUNTZA-IKASTAROAK (EUSKARA ZERBITZUA)

2019

2019ko URTARRILAREN 8ko DEIALDIA, EUSKARAREN eta ETENGABEKO PRESTAKUNTZAREN ARLOKO ERRETOREORDEARENA, ZEINAREN BIDEZ DEI EGITEN BAITZAIE UPV/EHUko IRAKASLE-IKERTZAILEEI eGELA-PI PLATAFORMAN EUSKARA LANTZEKO HOBEKUNTZA-IKASTAROETAN PARTE HARTZERA.

Euskal Herriko Unibertsitatean euskararen egoera azterturik eta Euskararen III. Plan Gidariak dioenari jarraituz, Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzak ekimenak sustatu nahi ditu irakasleek eta ikertzaileek hizkuntzaren ezagutza eta erabilera indartzeko eta zabaltzeko. Gure unibertsitateko beharrei erantzun nahian, Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzak euskaraz irakasten eta ikertzen duten irakasle-ikertzaileak trebatzeko ikastaroak antolatu ditu aurten ere.

ON LINE erako ikastaroak eGELA-PI plataformaren bidez eskainiko dira. AURREZ AURREKO ikastaroak Leioan eta Donostian eskainiko dira aurten, eta Gasteizen 2020an.

Ikastaroen edukietara etorririk, Euskara Zerbitzuak testuliburu eta ikasmaterial teknikoetan egiten dituen ohiko zuzenketen inguruko ikastaro bat eskaintzen jarraituko dugu. Bestalde, garrantzitsua deritzogu Internetek ematen dituen hizkuntza-lanabes bereziak ezagutzeari eta zabaltzeari, hala nola hiztegiak, terminologia, euskarazko softwarea, zuzentzaileak, dokumentazio-zentroak, eta abar: hori dela eta, ikastaro bat prestatu dugu EHUko irakasle-ikertzaileak halako lanetan trebatzeko. Testu akademikoak sortzeko, irakasle-ikertzaileek etengabe jo beharra izaten dute itzulpena; hori dela eta, eginkizun horretan trebatzeko lantegia eskaintzen jarraituko dugu ikasturte honetan ere. Horiekin batera, euskara batuko arau-kontuetara etorriko gara laugarren ikastaro batekin: aurreko urteetan eskainitako ikastaroaren jarraipen gisara ulertuta, han landu ez ziren edo behar bezain sakon landu ez ziren arauak izango ditu hizpide “Euskara batuko araugintzan sakonduz” ikastaroak. Etengabe eguneratzen eta hobetzen ditugu edukiak aurreko urteetan emandako ikastaroetan.

Aurrez aurreko ikastaroetara etorri, osasun arloko irakasle-ikertzaileentzat eskainiko dugu ikastaro bat Leioan eta Donostian, arlo horretako terminologian ziurtasuna lor dezaten.

Ikastaroetan izena emateko epea: 2019ko urtarrilaren 8tik 25era!!!

Webgune honetan aurkituko ditu interesa duenak ikastaroen programak eta argibide gehiago (metodologia, edukiak, izena emateko fitxa, eta abar):

<http://www.ehu.eus/eu/web/euskara/hobekuntza-ikastaroak-irakasleak>

“ON LINE” ERAKO IKASTAROAK

OTSAILA-MARTXOA	MARTXOA	MARTXOA-APIRILA	AZAROA
[OL1] UNIBERTSITATEKO TESTUAK: OHIKO ZUZENKETAK	[OL2] INTERNETEKO HIZKUNTZA- BALIABIDEAK	[OL3] TESTU AKADEMIKOAK ITZULTZEN TREBATZEKO LANTEGIA	[OL4] EUSKARA BATUKO ARAUGINTZAN SAKONDUZ
20 ordu	20 ordu	20 ordu	15 ordu
Kenari Gómez UPV/EHUko Euskara Zerbitzua	Julio García UPV/EHUko Euskara Zerbitzua	Iñigo Roque UPV/EHUko Euskara Zerbitzua	Manu López Gaseni UPV/EHUko Euskara Zerbitzua
UPV/EHUko irakasleak	UPV/EHUko irakasleak	UPV/EHUko irakasleak	UPV/EHUko irakasleak
LAU ASTE otsailaren 4tik martxoaren 1era	LAU ASTE martxoaren 4tik 29ra	LAU ASTE martxoaren 25etik apirilaren 17ra	HIRU ASTE azaroaren 4tik 22ra
25 ikasle gehienez	25 ikasle gehienez	25 ikasle gehienez	25 ikasle gehienez

AURREZ AURREKO IKASTAROAK

MAIATZA - LEIOA	IRAILA - DONOSTIA
B1 OSASUN ARLOKO TERMINOLOGIA	G1 OSASUN ARLOKO TERMINOLOGIA
ITZIAR SAN MARTIN EGIA (Medikuntza eta Erizaintza Fakultateko irakasle-ikertzailea, Euskal Hizkuntza eta Komunikazioa Saileko kidea)	ITZIAR SAN MARTIN EGIA (Medikuntza eta Erizaintza Fakultateko irakasle-ikertzailea, Euskal Hizkuntza eta Komunikazioa Saileko kidea)
12 ORDU	12 ORDU
OSASUN ARLOKO EDOZEIN GRADUTAKO IRAKASLE/IKERTZAILEENTZAT (batez ere Medikuntza, Erizaintza, Odontologia, Fisioterapia graduetako irakasle-ikertzaileentzat)	OSASUN ARLOKO EDOZEIN GRADUTAKO IRAKASLE/IKERTZAILEENTZAT (batez ere Donostiako campuseko Medikuntza, Erizaintza eta Psikologia graduetako irakasle-ikertzaileentzat)
2019ko maiatzaren 20tik 31ra (maiatzak 20, 22, 24, 27, 29 eta 31; 12:00-14:00 tartean)	2019ko irailaren 16tik 27ra (irailak 16, 18, 20, 23, 25 eta 27; 15:00-17:00 tartean)
Leioako campuseko Medikuntza eta Erizaintza Fakultatean	Donostiako Medikuntza eta Erizaintza Fakultateko Irakasgunean
20 ikasle gehienez	20 ikasle gehienez

EUSKARA LANTZEKO HOBEKUNTZA-IKASTAROAK (EUSKARA ZERBITZUA): 2019

Izena emateko epea 2019ko urtarrilaren 8an hasi eta 25ean amaituko da!

Azkar ibili, beraz, zure intereseko ikastaroak garaiz aukeratzeko!

NOLA EMAN IZENA:

IDATZ ITZAZU HONAKO FITXA HONETAN ESKATZEN DIREN DATUAK (**FITXA BAT IKASTARO BAKOITZEKO**), ETA BIDAL EZAZU HELBIDE ELEKTRONIKO HONETARA 2019KO URTARRILAREN 25ERAKO: maite.atxikallende@ehu.eus

IZEN-DEITURAK*:

NORTASUN-AGIRIAREN ZENBAKIA:

SAILA:

IKASTEGIA:

HELBIDE ELEKTRONIKOA:

TELEFONO-ZENBAKIA:

EGIN NAHI DEN IKASTAROA:

IKASTAROAREN KODEA:

CAMPUSA:

***OHARRA:** ZIURTAGIRIA EGITERAKOAN ESKAERA-ORRI HONETAN JASOTZEN DITUGUN IZEN-DEITURAK ERABILIKO DITUGU

OHARRAK:

1. Taldeetako ikasleen kopuru mugatua dela eta, ikasketariak ahalegin berezia egin behar du eskatu dituen ikastaroetan (eta bereziki Internet bidezkoetan) parte hartzeko.
2. Ikastaroak dohainik eskaintzen dira.
3. Ikastaro guztiak irekiak dira hiru campusetako irakasle-ikertzaileentzat.
4. Taldeak osatu ahala idatziko diegu interesatuei, onartuta dauden ala ez jakinarazteko. Erantzutean, lehentasuna izango dute lehenbizi (urtarrilean eta otsailean) eskainiko diren ikastaroetarako izena eman dutenek.
5. Aurreko urtetik itxaron-zerrendaren batean geratutako irakasleek lehentasuna izango dute aurtengo ikastaroetan (nolanahi ere, ezinbestekoa izango dute eskaera egitea).

Leioan, 2019ko urtarrilaren 8an



Jon Zarate Sesma
UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren
arloko errektoreordea